

Europa eta euroa

12

BIDEOAREN EDUKIAREN LABURPENA

Bideoa lau zati edo atal nagusitan dago zatitua. Gehienetan, ataleko albiste bat jorratzen da. Atalek euren helburu eta edukiak dituzte. Atal bakoitza bere izenburuarekin hasten da eta, ia beti, bukatzen atalean landutako hainbat kontzeptu gramatikal, pantaila bereziaz gogoratuz.

Gida didaktiko honetan pantaila bereziak dituzten atalak **“Pantaila gramatikal berezia”** leloaz adierazten dira.

Pantaila berezi hauetan, atalean esandako esaldi bat edo gehiago errepikatu ondoren, esaldiak gordetzen duen kontzeptu gramatikala adierazten da, errotulu bidez. Horregatik, pantaila hauetara iristean, agertzen dena landu ahal izateko, bideoa gelditzea proposatzen da.

OHARRA: Zintaren hasieran, 2 minutuz, koloreetako ohiko barrak eta txistu hotsa dituzu zure telebistaren koloreak eta hotsa egokitzeke.

Lehen kanpai hotsa entzutean, jarri zure bideoaren denbora neurgailua 00:00etan.

EBALUAZIOA

Gizartea eta Bilera atalak lantzeko egin dugun ekintza izan daiteke ebaluaziorako aproposa.

Egin dugun bileran, ikasleak, euren arrazoiak plazaratzerakoan nola moldatzen diren, eta bideoa ikusi aurretik eta bideoa ikustean, landutako kontzeptuak zein neurritaraino barneratu dituzten antzemango dugu. Eta ikasleen jarrera nolakoa izan den ere bai.

Gizartea atalaz baliatuz egin dugun gutunean, ikasleek esan beharrekoa idatziz prestatu dute. Beraz, gutunak jasoko ditugu. Gutunetatik aterako dugu, bai bileran esandakoak ulertu dituzten, bai ulertutakoak idazteko gai izan diren. Horrezaz gainera, landutako kontzeptuak erabiltzerakoan nola moldatzen diren eta zein maila duten jakingo dugu.

EBALUATZEKO

Idatzizko lanean kontuan hartuko dugu:

- egindako gutuna txukun eta bideoan proposatutako araei jarraitzen dion.
- esaldiak egokiro osaturik dauden.
- bideoan eta bideoa ikusi aurretik landutako kontzeptuak moldez erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten eta zenbat ez. (Ikaslearen historia egite aldera).

Ahozko saioetan ere lau puntu hartuko ditugu kontuan:

- azalpenak egiterakoan era ordenatuan egiten dituzten.
- esaldiak ongi osatzen dituzten.
- klasean landutako kontzeptuak moldez erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten eta zenbat ez. (Ikaslearen historia egite aldera).

Orro har, kontuan hartuko dugu ikasle bakoitzaren jarrera, eta taldeari egin dion ekarpena.

Azkenean, informazio hori guztia kontuan harturik, ikasle bakoitzaren lanaren ebaluazioa egingo dugu.

HELBURUAK ETA EDUKIAK

SARRERA

HELBURUA

Azalpenak lehen aldian ematen trebatzea.

EDUKIAK

HIZTEGIA

Lilura / Zezen otzana / Harremana

MODUZKOAK: -(E)LA -(E)LARIK

Europa gainean zuela.

KONTSEKUTIBOAK: HAIN... EZEN... -EN, HAIN... NON... BAIT / -EN

Hain otzana ikusi zuen zezena, ezen bere gainean eseri zen

Hain otzana ikusi zuen zezena, non bere gainean eseri baitzen

KULTURA

Europa izenaren jatorriaren berri izatea. Antzinako kulturen eragina gurean baloratzea eta onartzea.

EUROPA

HELBURUA

Geografiaren gaineko azalpenak ematen trebatzea.

EDUKIAK

HIZTEGIA

Mendebaldea / Ekialdea / Hegoaldea / Iparraldea

KONPARATIBOAK

Gorenko maila: **-(RIK) -ENA**

Gailurrik altuena / Ibairik luzeena

Gailur altuena / Ibai luzeena

Desberdintasuna: ...BAINO ...-AGO

Baino gehiago.

JAKIN ADITZ TRINKOA

Ba al dakizue zein diren...

(ikus pantaila gramatikal berezian)

KULTURA

Euskaldunoi dagokigun kontinentearen berri izatea, oso modu sinplean bada ere.

EUROPAKO BATASUNA

HELBURUAK

Gai baten prozesua historian zehar azaltzen ikastea.

EDUKIAK

HIZTEGIA

Urteak.

EDUKI ADITZ TRINKOA

(ikus pantaila gramatikal berezia)

ERAKUNDEAK

Europako Batzordea / Europako Parlamentua / Ministroen Kontseilua /
Europako Justizi Auzitegia

ERAKUNDEETAN DIHARDUTENAK

Komisarioak / Ministroak / Epaileak

LEKU-ADBERBIOAK

Hemen, hor, han. Horra hor, hona hemen.

KULTURA

Euskaldunoi dagokigun eremu politiko eta ekonomikoaren berri izatea, eta
eremu hori, Europako Batasuna, nola eratu zen jakitea,
oso modu sinplean bada ere.

EUROA

HELBURUA

Jolas baten azalpena egiten trebatzea.

EDUKIAK

ADITZA (NOR NORINORK)

Esango dizuet / Euroa deitu diogu..

DENBORAZKOAK

Botoia sakatzean

Uste duzuenean

Ondoren

ERAMAN ADITZ TRINKOA

(ikus pantaila gramatikal berezian)

KULTURA

Jolas baten bidez, klasean egin daitekeen jolas baten bidez, alegia, datorren euroaren berri ematea.

BIDEOA IKUSI ETA GERO EGITEKO MODUKO ARIKETA OSAGARRIAK

SARRERA

—Europa jainkosaren gaineko informazioa bilatzeko eskatu ikasleei. Berri idatziak eta irudizkoak, hamaika koadro baitaude gaia jorratzen dutenak. Ondoren, informazio guztiarekin idazkitxo bat presta dezatela eskatuko diegu, denen aurrean agertzeko.

Lana taldeka egin dezakete eta azken idatzia burutzeko iritziak adostu.

EUROPA

—Europaren gaineko ahalik eta informazio gehien bilatzeko eskatuko diegu ikasleei. Ondoren, jarraian dituzuen galderei eta, zuek erabakitako beste batzuei, erantzuteko eskatuko diegu. Erantzuteko esaldi osoak erabiltzeko esan.

Adibidez:

Zein da Europako hiribururik populatuena?

Europako zein estatuk dauzka kilometro karratu gehiago, Frantziak ala Alemaniak?

Europako zein estatutan dago leize zulorik sakonena?


Europako zein estatuk dauka kostalderik luzeena?

Non dago Europako eraikuntzarik garaiena?

—Bukatzeko, erantzun guztiak ordenatu eta idazkitxo bat prestatzeko esango diegu.

EUROPAKO BATASUNA

—Ikasleei Europako mapa emango diegu eta Europako estatuen izen zerrenda. Zerrendan ez daude Europako estatu guztiak, bai ordea, Europako Batasuna osatzen dutenak. Ikasleek izen horiei dagokien eremua atzeman beharko dute mapan. Ondoren, estatu horien ezaugarriak (azalera, mendiak, ibaiak, aintzirak, hiriburua eta hiri nagusiak, biztanle kopurua, hizkuntza/k, ekonomia, kultura, folklorea...) bilatuko dituzte eta idazkitxo bat prestatuko.



- Txekia
- Frantzia
- Bulgaria
- Errumania
- Danimarka
- Hungaria
- Espainia
- Polonia
- Irlanda
- Italia
- Norvegia
- Herbehereak
- Luxenburgo
- Monako
- Portugal
- Suitza
- Austria
- Belgika
- Erresuma Batua
- Finlandia
- Suedia
- Alemania
- Grezia

EUROA

Atal honetan ikusi duguna lantzeko, matematikazko ariketa batzuk egingo ditugu. Ariketok euroaren eta bideoan zehar ikusitako estatuaren diruarekin zerikusia dute. Saioaren azken atal honetan Jonek esaten digu oraingo diruak eurotan duen balioa kalkulatzeko alferrikako lana dela; halere, horretan arituko gara.

Bilatu ariketa hauen soluzioa:

Azalpena: Markosek poltsikoan mila duroko billete bat darama. Banketxe batean sartzen da eta leihatilaren atzean dagoenari, billetearen ordeztu, euroak emateko. Gero, euroak poltsikoan sartu, banketxetik ateratu eta denda batean sartu da.

Galdera: Markosek, orain, zenbat euro darama poltsikoan?

Azalpena: Xabierrek ordenagailu bat erosteko asmoa dauka. Horretarako, mila eta seiehun euro daramatza zorroan. Dendara sartu da eta txarteltxo batean ikusi du ordenagailuak berrehun eta berrogeita hamar mila pezeta balio duela. Hala ere, erosi egiten du.

Galderak: Emango al dio dendariak ordenagailua Xabierri? Ematen badio, itzuliko al dio eurorik? Zenbat?

Azalpena: Miren, Ander eta Joseba gazteen etxean elkartu dira. Donostiara joan nahi dute musika emanaldi batera. Trenez joango dira. Treneko txartelak euro bat eta bost zentimo balio du. Emanaldiko sarrera txartelak bost euro eta hogeita hamar zentimo. Mirenek, mahai gainean, bostehun eta berrogei pezeta jartzen ditu. Anderrek ehun eta hamabost pezeta, eta Josebak, hirurehun eta hogeita bost pezeta.

Galderak: Joan ahal izango dira Donostiara eta emanaldia ikusi? Etxera bueltan izango al dute eurorik edo euro zentimorik? Zenbat?

EBALUAZIOA

Atalez atal egin ditugun idazkitxoez txosten bat presta dezatela esango diegu ikasleei. Txosten horiek izango dira ebaluazio gai.

EBALUATZEKO

Idatzizko lanean kontuan hartuko dugu:

- paperean prestatutako txostena txukun dagoen.
- esaldiak egokiro osaturik dauden.
- bideoan eta bideoa ikusi aurretik landutako kontzeptuak moldez erabili dituzten.
- zenbat kontzeptu erabili duten.

Oro har, kontuan hartuko dugu ikasle bakoitzaren jarrera, eta taldeari egin dion ekarpena.

Azkenean, informazio hori guztia kontuan harturik, ikasle bakoitzaren lanaren balorazioa egingo dugu.